


**EGURALDIAREN EUSKARA****ARO-BIDAIA EUSKAL HERRIAN BARRENA****Kepa Diegez****Bilduma:** Saiakera**Generoa:** Saiakera**Formatua:** 15 x 23,50 cm.**Orrialdeak:** 316**Koadernaketa:** paperezko azala**Argitalpen data:** 2023/11/01**ISBN:** 978-84-9868-834-4**SALNEURRIA (BEZ gabe):** 21,15 €**SALNEURRIA (BEZ barne):** 22,00 €EGURALDIA, KULTURA, NATURA, LEXIKOA,
HERRI KONTAKIZUNAK, SAIAKERA
NOBELATUA

9 788498 688344

Kepa Diegez
EGURALDIAREN EUSKARA**ARO-BIDAIA**
EUSKAL HERRIAN BARRENA

ALBERDANIA

**Sinopsia**

Liburu honek protagonista behinena du bere baitan: aro-bidaia. Denbora-bidaia batek ez bezala, hark ez du atzera-aurrera egiten denboran barrena, baizik eta beti aurrera egiten duela, herriz herri, eguneroko solasaldietan erabiltzen diren *arotitzak* –eguraldiari buruzko hitzak– Bildu nahian, uste sendoa baitu hitzak komunitate kultural baten ordezkari bereizgarrienetarikoa direla; maiz, hitzak ez ezik, esapideak, atsoitzak eta mundua ulertzeko erak entzun eta jasoko ditu. Den-dena zorroratzeko gogo hartuko du bidaia-kaiera batean, baina, hainbeste kontu azalduko zaizkio, ezen, bidaia-une jakin batean laguntza eskatu beharrean egongo baita, bidaia pentsatutako moduan amaituko badu.

Euskal Herriko herrialde guztietan gairi ibiliko da, Getxon hasi, oraindik jatorrizko hizkera gordetzen duen Bizkaiko herria, mendebaldearenean kokatua, eta Eskiulan bukatu, Euskal Herriko kanpoko herri euskalduna, Biarno aldean. Elkargune ugari erabiliko ditu herritar eta adituekin aroaren hitzez jarduteko: kultur etxeak, udaletxeak, euskaltegiak, euskara-elkarteak, tabernak, elizak, parkeak... edozein toki eder zaio aro-bidaia-herri eta adituekin ihardukitzeko.

Saiakera nobelatua da, xedea erakutsi, azaldu eta irakastea baitu, baina eleberritik, kontakizunetik ere badauka, fikziozko eta benetako pertsonaiak bidaia guztian zehar, han-hemenka, agertzen dira-eta. Jakina, hunkigarria, liburua hasieratik amaitu arte irakurtzea da, baina irakurleak aukeran du zuzen-zuzenean herri edo eskualde batera jotzea, zein ele erabiltzen diren ikasteko, edota bidaia-errea agerturiko hitz guztien aurkibideaz baliatu, non erabiltzen diren begiratu eta testuingurua irakurtzeko.

Egileaz

KEPA DIEGEZ (Bilbo, 1960). Informazio Zientzietan lizentziaduna EHU eta Euskal Filologian Deustukoan, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan doktorea ere bada (EHU). Eguraldiari lotutako ikerlan, artikulua, liburu eta hitzaldi ugari ondu ditu; besteak beste: «Etnometeorologiari buruzko euskal hiztegia egiteko oinarriak eta osagaiak» komunikazioa (Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra, 2001); *Eguraldia eta kultura euskaldunen artean* (Gaiak, 2008); «Euskal lexiko meteorologikoaren azterketa» (UZTARO 120, 2022) eta «Euskal lexiko meteorologikoaren azterketa: kultura eta kognizioa» (ASJU, 271, 2022). Lan-arloan, 1985etik aurrera irakaskuntzan ari da hainbat ikastetxe, fakultate eta euskaltegitan, euskararen alorrean, beti ere.